

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan behar ditugun elementu garrantzitsuenak honela sailka daitezke: fisikoak, intelektualak, gizartekoak eta finantzarioak.

-Fisiko aldetik:

- Jatetxe zabal bat muntatzeko bezain handia den lokal bat, sukaldea duena.
- Hasteko, bi bizikleta elektriko izango ditugu, baina ikusten badugu behar adina eskaera ditugula, gehiago izango ditugu, eraginkortasun handiagoa izateko.
- Ordenagailu bat eta bi telefono finko izango ditugu, gure aplikazioak, webguneak edo telefonoak egindako eskaerei erantzuteko.
- Mahaiak, aulkiak eta dekorazio-elementuak, material ekologikoz eginak.
- Baxera eta sukaldeko elementuak.
- Plastikozko ontziak, etxez etxeko eskaerretarako estalkiak dituztenak. (Horrelako ontziak erabiltzea ezinbestekoa denez, ontzi horiek birziklatzeko ekimenak izango ditugu. Bezeroek gehigarri bat ordaindu beharko dute ontzi horiekin geratu nahi badute; itzuliz gero, berriz, gure establezimenduan erabiltzeko promozio berriak lortzeko tiket bat jasoko dute eta ontziengatik ordaindutako dirua itzuliko diegu).

-Intelektuala aldetik:

- Jatetxearen izenaren marka (Ekojan), Patenteen eta Marken Europako Erregistroan erregistratua egongo da.
- Bezeroak lortzeko, mantentzeko eta haiekiko komunikazio-harremanak mantentzeko merkataritza-trebetasunak.
- Errezetak egiten lagunduko diguten ekologikoen eta naturisten taldeak hedatzen laguntzea.

-Giza aldetik:

- Aitana: Web orria, menuak eta establezimendua diseinatzeaz arduratuko da.
- Martin: Sukaldez, lehengaien hornitzaileekin kudeatzeaz eta Aitanarekin batera menuak diseinatzeaz eta prestatzeaz arduratuko da.
- Izarra: Bera arduratuko da jatetxearen alderdi ekonomikoez eta hazkundeaz. Hornitzaileekiko harremanez arduratuko da. Ibilgetua, energia-hornitzaileak, baita finantza-erakundeekiko kudeaketaren hornitzaileak ere.

-Finantziario aldetik:

- 25.000 euroko lehen inbertsioa, hiru bazkideen aurrezkietatik datorrena.
- Banku baten mailegua eskatzeko aukera ere daukagu, negozio bat abian jartzerakoan sortzen diren gastu nagusiei aurre egin ahal izateko.
- Gaztempresaren balizko diru-laguntza, 30 urtetik beherakoei negozio bat abian jartzeagatik.
- Mikroenpresetan eta pertsona autonomoetan inbertsioak egiteko finantza-laguntzaren AFA programa. (Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zenbatekoa 15.000 €-koa izango da gutxienez).